

2.1. Hizkuntza, hizkerak (dialektoak) eta barietateak

Hizkuntza:

- ♦ Hizkuntza komunitate jakin bateko hiztunek partekatzen duten sistema linguistikoa, beraien arteko komunikazioa ahalbidetzen duena.
- ♦ Abstrakzioa da: komunitate linguistiko horretako hiztunek hitzegiten dituzten barietate ezberdinek komunean dituzten tasunetan oinarrituta eraikitako abstrakzioa.
- ♦ Hizkeren (dialektoen) bidez gauzatzen da (hiztunek ez dute “hizkuntza bat” hitzegiten, hizkera/dialekto bat baizik)

2.1. Hizkuntza, hizkerak (dialektoak) eta barietateak

Hizkuntza(k)

- Conocimiento gramatical común que comparten los hablantes de una determinada comunidad lingüística (Moreno Cabrera, 1991)
- Sistema lingüístico compartido por una comunidad que mantiene la homogeneidad necesaria para permitir la comunicación entre sus hablantes. Pero no es una entidad concreta: es un concepto abstracto que no tiene hablantes reales y que solo se realiza a través de los dialectos. Nadie habla una lengua, sino una variedad de esa lengua; es decir, en realidad no se habla español, inglés, francés, etc.; se habla alguno de sus dialectos, que son los que están más próximos al uso real de una lengua. El dialecto es, por tanto, una modalidad concreta de una lengua, circunscrita a un espacio geográfico, que posee, por un lado, unas características lingüísticas propias, y, por otro, rasgos comunes con otras variedades (Escandell et al. 2015 [2011], *Invitación a la lingüística*, Madrid EURA & UNED, 37 or.

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak



- Zer da hizkuntza?

“Bere kasa utzitako hizkuntzak dialektoak izango lituzke soil-soilik; eta dialekto horietan bata besteen gainetik ezarriko litzatekeen dialektorik ez legokeenez, etengabe zatikatuko litzateke. Baina zibilizazioak, garatzean, komunikabideak ugaltu ohi dituzenez, dialektoetako bat aukeratu ohi du, nolabaiteko isileko egiunez, dialekto hori nazioari oro ohar interesatzen zaion guztia adierazteko bide eta tresna bihurtuz. Askotariko zergatikoak izan ohi dira tartetik aurkera egiteko garaian: batzuetan, zibilizazio maila aurreratuen duen lurraldeko dialektoari eman ohi zaio lehentasuna; bestetan, nagusitasun politikoa eta aginte zentralaren egoitza dituen probintziako dialektoa aukeratu ohi da; beste batzuetan, gorte batek ezartzen dio haren hizkera nazioari”. (F. de Saussure 1916: 238)

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- El estudio científico de la lengua ha convencido a la mayoría de los académicos que todas las lenguas, y por lo tanto todos los dialectos, son equivalentemente “buenos” como sistemas lingüísticos. Todas las variedades de una lengua son sistemas gobernados por reglas complejas y estructuradas, y son totalmente adecuados para cumplir los requisitos de sus hablantes. De eso se desprende que **los juicios de valor, respecto a la corrección y pureza de variantes lingüísticas, son sociales y no lingüísticos. No hay nada intrínseco en las variantes no-estándar que las haga inferiores.**

Trudgill 1974:20

(<http://www.sil.org/capacitar/sociolx/DialCita.ht>)

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- Dialekto nagusiaren eta beste talde batzuen dialektoaren arteko desberdintasun hutsalak –hala nola *joan behar du* vs. *joan behar da*; *esan didate* vs. *esan naute* eta abar– “gramatika zuzenaren” etiketatzat hartu eta goستن dira. Halakoek, baina, ez dute zerikusirik gramatikaren sofistikazioarekin; ez, behintzat, zomorro jakin bati leku batzuetan *burruntzi* eta beste lekuetan *sorgin-orratz* deitzeak edo txakurrei ingelesez *dogs* eta frantsesez *chiens* deitzeak baino areago. Izan ere, engainagarri samarra izan daiteke, inglesaren kasuan bederen, estandarrari “hizkuntza” eta gainerako aldaerei “dialekto” esatea, bien artean desberdintasun esanguratsurik balitz bezala. Definizioarik onena Max Weinreich hizkuntzalariak eman zuen: hizkuntza, gudarostea eta itsas armada dituen dialektoa da.

Pinker 2010 [1994]. *Hizkuntzaren sena*. 22-23 or.


2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- *Barietate estandarra.*
- Hizkuntza estandarra komunitate batean aski zabaldua, prestigioduna eta (ahozko zein idatzizko) era eta testuinguru formalean nagusia den hizkuntzaren aldaera da, hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan gehien erabiltzen dena.

Hizkuntza aldaera batek aldaera estandar izateko bete behar dituen baldintzak:


- **demolinguistikoa:** hiztun kopuru handia izatea
- **sozioekonomikoa:** herri handietan erabilia, ekonomikoki indarra duten herrietan erabilia
- **soziolinguistikoa:** hizkerak ospea izatea (askotan literatura idatziagatik)
- **linguistikoa:** orokorrean, aldaera diferenteetako hiztunek ulertzeko eta ikasteko errazena eta gertukoena izatea

2.1. Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak. Barietate estandarra: Euskara batuaren adibidea




- Louis Lucien Bonaparteren sailkapena (1866)

Euskara batuaren adibidea: euskalkiak



Euskara batuaren adibidea: euskalkiak



Euskara batuaren adibidea

Euskara batua, gehien bat, erdialdeko euskalkian oinarritzen da eta erabakia zuzena da (Zuazo 2005):

- Hizkuntzaren ikuspegitik, erdialdean egiten den euskara da euskaldun guztiontzat ulerterrazena. Bizkaia aldera edo Zuberoara joz gero, bertako euskarak ez dira hain ulerterraz gainontzeko euskaldunontzat.
- Ikuspegi soziolinguistikotik, ospe handiko aldaera izan da.
- Ikuspegi demolinguistikotik, hiztun kopuru handiena duen euskalkia da (mendebaldekoarekin batera).
- Ikuspegi sozioekonomikotik, herri euskaldun handi ugari dago Gipuzkoan.
- Literatur tradizioari begiratuta ere, euskalki emankorra izan da gipuzkera (XVIII. mendetik hona).

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barrietateak

Hizkuntzen ofizialtasuna zer da? Estatu batek hizkuntza bat ofizial izendatzeak esan nahi du:

- Ofiziala deneko lurralde, herrialde edo estatuetan lege balioa eta ondorioz babesa.

(Estatuak hizkuntza hori bere legerian sartzea, aitorten ofiziala emanez. Horren ondorioz hizkuntza hori babesteko eta sustatzeko neurriak har daitezke.

- Honek hiztunei hizkuntza balio eta eraginkortasun juridiko guztiarekin erabiltzeko eskubidea aitortzen die eta administrazio publikoarekiko harremanak hizkuntza horretan izateko aukera ematen die
- Ofizial izateak prestigioa ematen dio hizkuntzari
- Horren ondorioz, hizkuntzaren aldeko jarrerak sortzen dira biztanleen artean (Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. & Amorrortu, E. (2005) *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Unesco Etxea & Euskal Herriko Unibertsitatea., 155. or.).

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- Zenbat hizkuntza dira ofizial edo koofizial munduan?

250 inguru (193 Estatu inguru, 6000 hizkuntza inguru).

Ofizialtasuna oso ezberdina izaten da teorian eta praktikan. Estatu askok hizkuntzaren ofizialtasuna aitortzen badute ere, egiaz hizkuntza “toleratu” baino ez dute egiten. Horrek esan nahi izaten du ez dutela ahaleginik egiten hizkuntza hori sustatzeko, eta ekimen pribatuak (hiztunak) izaten direla normalean beren indar eta baliabideez lan egiten dutenak

(Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. & Amorrortu, E. (2005) *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Unesco Etxea & Euskal Herriko Unibertsitatea., 158. or.).

- Ofizialtasunak ez du beti biziraupena ziurtatzen (Irlandan irlandesa, adibidez).

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- <http://www.euskalkiak.eus/>
- **Zuberotarra:** (Robert Larrandaburu)
http://www.euskalkiak.eus/ikus_entzunezkoak.html#bost
- **Nafar-Lapurtarra:** (Miren Aire)
http://www.euskalkiak.eus/ikus_entzunezkoak.html#lau
- **Nafarra** (Susana Agerre)
http://www.euskalkiak.eus/ikus_entzunezkoak.html#hiru
- **Erdialdekoa:** (Abel Barriola)
http://www.euskalkiak.eus/ikus_entzunezkoak.html#bi
- **Mendebaldekkoa** (Itxaro Mentxaka)
http://www.euskalkiak.eus/ikus_entzunezkoak.html#bat

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barrietateak

- *Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea*

<http://www.ahotsak.eus/herriak/>

- <http://www.ahotsak.eus/ispaster/>

- <http://www.ahotsak.eus/zeberio/>

- <http://www.ahotsak.eus/azkoitia/>

- <http://www.ahotsak.eus/aramaio/>

- <http://www.ahotsak.eus/hazparne/>

- <http://www.ahotsak.eus/baztan/>

- <http://www.ahotsak.eus/baigorri/>

- <http://www.ahotsak.eus/pagola/>

2.1 Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak

- *Atlas interactivo de la entonación del español*

<http://prosodia.upf.edu/atlasentonacion/>

- Andaluza:

<https://www.youtube.com/watch?v=5po3PmnpMxc>

<https://www.youtube.com/watch?v=wcSZ8AX0lPs>

-